

HIRIBILDUA

Unitate honen azken helburua Durangon zehar bisita gidatua egitea izango da. Horretarako Marik Mikel Donostiako lehengusuaren gutuna jasotzen du eta aurretik Donostian egin zuten bezala, oraingoan Durangon egitea proposatzen dio.

Azken xedea egiteko jarduera ezberdinak egitea eta taldeka funtzionatzea proposatzen dugu. Bitarteko lez, Durangori buruzko oinarrizko informazioa jasoko duen eskuorria landuko dute, bertan ikasleen gustukoa den lekua ezaugarriak ere adieraziko dute. Azkenik, bisita gidatua bera egingo dute eta beraien ikaskideei landutako informazioa azalduko diote lekuan bertan.

Azken xede hau egiteko jarduera ezberdinak egingo dituzte unitatean zehar. Berauek azken proiektua egin ahal izateko baliabideak izango dira. Goazen ba jardueraz jarduera.

Azoka txikia

Atal hau unitate guztietan egongo da. Bertan, gaiari lotutako materiala etxetik ekarri eta eskolan/ikastolan erakusgai jarriko dugu, ahal baldin bada jendeak ikusteko lekuan (sarreran, pasilloan, ...) Honekin eskola komunitateak zertan ari garen jakingo du.

Materiala ekartzen dutenean zer eta zergatik ekarri duten azaltzea izan daiteke ariketa posible bat. Ikasleak ahozotasuna landuko du horrela.

Mari eta konpainia (komikia)

Aurretik aipatu dugun bezala, Marik bere lehengusu Mikelen gutuna jasotzen du. Horixe bera agertzen da komikian ere. Atal honen helburu nagusia aurre ezagutzak aktibatzea izango da eta komikiaren azken galdera erantzutea interesgarria izan daiteke: “baina zer dakit nik, bada Durangori buruz?. Galdera horri laguntzeko 3. orrialdean agertzen diren galderak daude eta berauekin ikasleek dakitenaren berri izango dugu. Beheko koadernotxoan idatzi ahal izango dute nahi izanez gero. Bakoitzaren aurre ezagutzak partekatzea garrantzitsua da eta horretarako elkar entzuteko moduan jarriko gara, borobilean adibidez.

Bisita prestatzeko bisita

Atal honetan bisita gidatua egiteko baliagarriak izan daitezkeen baliabideak ematen dira. Alde batetik, Arte eta Historia Museoa eta bestetik Turismo bulegoa bisitatzea proposatzen da. Izan ere, Arte museoan erdi aroko Durangoko hiribilduaren maketa dago eta berauek kokatutako eraikinak ere oso esanguratsuak dira. Bisita eginez gero, berauetan dauden eskuorri nahiz

informazioa jaso eta klasera eramatea interesgarria izan daiteke. Seguru gure proiektua osatzera bidean ezinbestekoak izango direla!

Bestetik, eskuorriak egiterakoan kontuan izan beharreko atalak adierazten ditugu. Unitatean zehar hainbat informazio landuko dugu eta berau modu txukunean antolatzea garrantzitsua izango da. Horretarako orrialde honetako beheko aldean eskuorria egiteko maketazio proposamen bat egiten dugu. Ikasleentzako baliagarria izan daiteke, baina beste moduren bat proposatuz gero, seguru oso ondo dagoela.

Kokapena

Atal honetan Durangoren kokapenari buruzko informazioa ematen da. Horretarako, Marik osaba Bittorregana jotzen du eta mapa baten gainean Durangori buruzko oinarrizko informazioa ematen digu. Orrialdearen bukaeran informazioa barneratu dela ziurtatzeko baieztapen batzuk egiten dira. Zuzen ala oker dauden esan beharko dugu. Baina, ez ahaztu garrantzitsuena eskuorria osatzeko informazioa jasotzea izango dela. Hasierako atala egiteko ziur oso baliagarria izango dela orrialde honetako informazioa.

Azkenik, osaba Bittorren ondoan iparrorratza agertzen da. Bergogoratu non dagoen iparra, hegoa...

Galderen erantzunak: 1)Oker 2)Oker 3)Zuzen 4)Oker 5)Oker

Iparrorratza

Berriro ere iparrorratza agertzen zaigu. Oraingoan Durangorekin muga egiten duten herriak non kokatzen diren adierazi beharko dugu. Horretarako, 5. Orrialdeko mapa oso baliagarria izango zaigu.

Iparaldean: lurreta

Ekialdean: Abadiño

Hegoaldean: Izurtza eta Mañaria

Mendebaldean: Amorebieta- Etxano

Ez ahaztu 5 eta 6. Orrialdeko informazioa eskuorrian sartzea. Horretarako 6. Orrialdean behean informazio esanguratsua jasotzeko koadernotxo erabil dezakezue.

Nor da nor?

Belen Bengoetxea Rementeria.

Atal honetan aipatutako adituaren inguruko informazioa ematen dugu. Durangoko Hiribilduari buruzko hainbat lan egin ditu, tartean, Santa Anako indusketak gidatu zituen. Hurrengo ariketan ikasleak izango dira adituak.

Geu ere aditu

Belenen lez geu ere adituak izan gaitzke, baina horretarako informazioa jaso eta berau lantzea garrantzitsua izango da. Kasu honetan bi testu landuko ditugu: A) Durangoko Hiribilduaren sorrera eta B) Harresiak eta portaleak. Baina guztiok guztia landu beharrean, aditu taldeak sortuko ditugu. Batzuk A irakurgaia landuko dute eta besteek B irakurgaia. Hasierako taldeak irakurgaia batuko dira, batzuk sorreraren adituak izango dira eta besteak harresiarenak. Ondoren, beraien eskuorria/ bisita gidatua egingo duten taldera bueltatu eta ikasitakoa partekatu beharko dute (hasieran taldeak egiterakoan kontuan izan beharko dugu). 7. orrialdean ere agertzen da azalpena eta informazioaren trataera garrantzitsua izango da. Ondoren, talde bakoitzak erabaki beharko du eskuorrian nola txertatuko duen informazioa.

A eta B irakurgaiak

Atal honetan Durangoko Arte eta Historia Museoa dagoen maketa ikus dezakegu. Aurreko orrialdeetako informazioa baliatuz ea gai garen hutsuneak betetzeko. Kontuan hartu oharra.

Kale nagusiak: 1. Kalebarria 2. Goienkale 3. Artekale 4. Barrenkale 5. Zeharkalea.

Ondoren, portaleak kokatu beharko dituzue, animo eta ez ahaztu eskuorrian informazio hau jaso beharko duzuela. Orrialdearen beheko aldean apunteak hartzeko lekua dago.

Iragana eta oraina lotzen

Behin maketan kaleak eta portaleak kokatuta gaur egungo ze lekutan kokatzen diren ikusiko dugu. Horretarako izenak eta argazkiak ematen dizkizuegu, berauek lotu beharko dituzue. Saiatu beraz, erdi aroko argazkia eta gaur eguneko lotzen.

Durangoko bonbardaketa

Durangoko hiribildua kaltetu zuen eta hori erakusten duen argazki esanguratsua agertzen da 12. Orrialdean. Bonbak jaurti ahala ateratako argazkia dugu ikusgai. Hortaz gain, plaka baten argazkia ikusten da eta ikasleei non dagoen galdetuko diegu. Horretarako behean agertzen den

lotura ere erabili dezakegu, baina plaka dagoen lekua ezagutzea ere aukeretako bat izan daiteke.

Bazenekien? Iurretako iturria

Iurretako iturriaren gora beherak kontatzen ditu eta Iurreta herria desanexionatu zenean, nola berriro bere tokira joan zen azaltzen du. Hau bitxikeria modura lantzeko zerbait izan daiteke. Iturriaren oinean dagoen inskripzioa ere interesgarria da, bertan noiz eraman zuten eta noiz ekarri zuten adierazten baitu.

Geure txokoa

Eskuorriaren atal batean ikasleen gustukoa den leku bat sartzea proposatzen dugu. Taldeka egin beharko dute eta arrazoiak eman ostean, informazioa batu eta argazkia atera beharko dute. Azkenik, beraien eskuorrian nola txertatu ere pentsatu beharko dute eta bisita gidatuan nola antolatuko diren pentsatu.

Azken ekoizpena

Eskuorria egin

Behin informazio guztia jasota, orain antolatzeko momentua da. Tarte bat utzi beharko dugu beraien eskuorria amaitzeko eta horretarako kontuan hartu beharko duzue 4. Orrialdean agertzen den eskuorria zelan egin atala. Ez da beharrezkoa ordena berbera jarraitzea, baina izan beharreko atalak horiek izango dira. Ez ahaztu taula horiak irakurtzea eta ikasleei gogoraraztea.

Bisita gauzatu

Bisita gidatua bera antolatu beharko duzue eta horretarako eskuorriak fotokopiatu beharko dituzue. Hortaz gain, eguna eta bisita lekuak adostu beharko dituzue. Ikasleek aukeratu dituzten lekuak, portaleak, iturria... Aukera ezberdinak egon daitezke eta hori talde handian erabaki beharko duzue.

Antolaketa lanean irakaslea izan beharko da gidari eta aurreikuspenak egin beharko dituzue. Animo ba!! Seguru lehengusu Mikelentzako ere oso interesgarria izango dela!!

Ez ahaztu taula horiak irakurtzea eta ikasleei gogoraraztea.

Zer ikasi dut?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.